

## Urteko 29. Igandea C

## 120. Salmoa

L.a. 131 / S.a. 37

( 5+4 / 5+4 )

Jau - na - ren bai - tan nik in - da - rrak e - gin bai - ti - tu ze - ru - lu - rrak.

**Jaunaren baitan nik indarrak  
Egin baititu zeru-lurrak.**

Begiak dauzkat mendi alde:  
Indarrak neri nondik ote?  
Jaunaren baitan nik indarrak,  
Egin baititu zeru-lurrak.

Balitz bidean zerbait zilo,  
Zain dagozuna ez dago lo.  
Ez dago ez lo, ez kuluxkan,  
Zer Izraelen arta daukan!

Beti zure zain dago Jauna :  
Eskuin aldean hau laguna !  
Ez zaitu joko iguzkiak,  
ez eta gauaz ilargiak.

Gaitzetik Jaunak zaintzen zaitu,  
Zure arima bere baitu.  
Badago Jauna zure alde,  
Joan itzultzetan mendez mende.